

XABXABen ELKARRIZKETA

1) Zer motako pintura baliatzen duzu? Zergatik?

Pintura akrilikoa erabiltzen dut uraren gainean oinarritzen baita, ez dut ezentzaz garbitzen diren disolbatzailez egindako pinturarik erabili nahi, ez dut garbitzeko gai kutsagarrikerik erabili nahi. Ez dut planeta gehiegi zikintzen pintura garbitzen dudanean.

2) Zergatik beti zuri eta beltzez margotzen duzu?

Iruditzen zait Zuri eta beltzez diren argazkiek eragin gehiago dutela, agerian ezarri nahi dena hobekiago ulertzen baita. Zuri-beltzaren gainean argia zuria da, beraz, aurpegi edo esku bat argazkitan hartuz, argia zuzenean ikusten da. Koloretan, berriz, argia nahiko horia edo laranja aterako litzateke. Zuri-beltzak kontrastea areagotzen du.

3) Nola hasi zinen margotzen ?

Betidanik marrazten dut, ttipitatik, baina garaian arkatza baliatzen nuen. Duela urte batzuk euskarria aldatu dut, papera erosi behar delako, eta ez nuen erosteko gogorik; beraz, inguruan nituen euskarriak erabiltzen hasi nintzen: egurra, kartoia... Arkatza ez da euskarri horien gainean baliatzen ahal, eta ondorioz pinturara pasa nintzen.

4) Nola lortzen duzu inspirazioa atzematea ?

Ainitz irakurtzen dut, argazki liburuak begiratzen ditut, maiz liburutegira noa edo interneten zer gertatzen den begiratzen dut, baina batez ere, arte liburu espezializatuak kontsultatzen ditut, eta horiengandik inspiratzen naiz. Baina, nere familia ere ainitz marrazten dut, eta nere senideak ere inspirazio iturri dira neretzat.

5) Lehiaketa bat/batzuk irabazi ote dituzu?

Ttikitan lehiaketetan parte hartu dut, eta bat irabazi ere kolegioan nintzelarik. Bestela, Street Art-eko topaketetan parte hartzen saiatzen naiz. Hiri batzuek antolatzen dituzte, eta helburua hiriko paretak margotzea da; beraz, urte batzuk daramatzat horrelako lehiaketetan parte hartzen, eta irabazten saiatzen, leku guzietan margotu nahi dudalako.

6) Zenbat denbora ematen duzu obra bat sortzeko ? Zein izan da luzeena ?

Proiektu oso bat bururatzeko, inspirazioa xerkatzen dut eta margotu nahi dudana argazkitan hartzen dut. Beraz, hori guzia egiteko eta zirriborroak paperean egiteko, 3 edo 4 egun behar ditut. Gero paretaren gainean margotzen dut, eta lan horren iraupena paretaren neurriaren arabera da. Adibidez, zinemakoa egiteko hilabete bat pasatu dut, pareta baten gainean egin dudana lehen margoa da eta denbora gehien hartu didana.

7) Zein da gustukoena duzuna ? Zergatik ?

Pentsatzen dut Pariseko festibal batean egin dudana dela, duela bi urte. Nere amaren potreta egin dut.

8) Zergatik Street Art-a hautatu?

Beste obra batzuk egiten ditut, baina Street Art-ari esker ezagutua izan naiz eta gaur egun gisa horretako obren egiteko deitua naiz. Baina berez, paper gainean marrazten dut edo pintatzen. Pinturarekin hasi nintzen, eta gero maite nuenarengandik hurbilago ziren gaiak garatu nahi izan nituen, neurri handiagoetan.

9) Ba ote zenekien zure obrak arraskastatsuak izanen zirela?

Ez dakit gaur egun lortu dudana, ez dut uste benetan jakin dezakegunik arrakasta izanen dugun ala ez. Haatik, uste dut, egin nahi denaren azken muturrera iristeko osagai eta gogo guziak ezarriz geroz, arrakastara hurbiltzen girela. Berez, ez nuen uste hortarik bizi nintekeenik, nik, nere lanaz gain, marraztea besterik ez nuen buruan, eta azkenean, gaur egun, hori besterik ez dut egiten. Duela bi urte dira orain, nere pasiotik bizi naizela, ez da lanbide zozorik, bere pasiotik bizi daiteke, dena % 100ean egiten bada eta egiten den horretan benetan sinesten bada, ez dut ikusten zergatik ez daitekeen hortarik bizi.

10) Hasi zirelarik Street Art-a famatua zen ? edo gaizki ikusia zen ?

Street art-ari interesatzen hasi nintzelarik, arte mota horrek ez zuen benetako izenik, ez zen existitzen. Karriketan gertatzen zenaz hitz egiten zen, hala nola grafitia eta taga. Debekatutzat jotzen zen, pertsona batzuek beraienak ez ziren paretetan margotzen zutelako. Baina horretan lanean hasi nintzenean, herriko etxe ainitzek kaleko arte mota hori gustukoa zuten, gehiago arautu nahi zuten, eta artistei paretak proposatzea erabaki zuten, hori da orain ezagutzen dugun Street Art-a eman duena. Street Art deitzen dena, berez, freskoak dira.

Gaizki ikusia zen hasi nintzenean baina ez nintzen oso ezaguna eta denek egiten zuten. Herriko etxeak edo pareren jabeak kexatu ezin dituen euskarriak erabiltzen saiatzen naiz. Hau obretan egiten dut, abandonatutako lekuetan, tokia edertzen saiatzen naiz. Gaur egun ere debekatuta da, eskaerak edo horrelakoak egiten dizkidanenean izan ezik. Baina neretzat egiten badut soilik, debekatua da.